# gurean
berdintasuna

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Hezkuntza Saileko Berdintasunerako administrazio-unitatea
3. zbk. 2018 Maiatza


# SOY GAY
# LESBIANA NAIZ
# SOY BISEXUAL
# TRANSEXUALA NAIZ
# SOY HETEROSEXUAL
# ZU BEZALAKOA NAIZ
# GIZAKIA NAIZ

MAIATZAK 17

HOMOFOBIA, TRANSFOBIA ETA BIFOBIARE AURKAKO EGUNA

LESBIANA NAIZ

SOY BISEXUAL

TRANSEXUALA NAIZ

# LGBTIFOBIA ESKOLAN ETA HETEROSEXUALITATEAREN "MATRIXA"

***LGBTI kolektiboa osatzen duten pertsona lesbiana, gay, bisexual, transexual eta intersexualen egoera asko hobetu da azken urteotan. Hala ere gure gizartean errotutako hainbat estereotipo, aurreritzi eta sinismenek, LGBTIfobia adierazten duten jarreren mantentzea laguntzen dute. Errespetuzko balio eta jarrerak moldatuz, hezkuntz sistemak berebiziko garrantzia dauka berdintasunezko gizarte baketsuago baten helburua lortzeko.***

Moisés Mahiques artistak honela definitzen ditu besteak, beste pertsonak:" printzipioz desberdin azaltzen zaigun hori dira besteak, testuinguru jakin batean gure kokapenaz jabetzeko eta gu benetan nor garen onartzeko balio duena". Homosexualitatea, lesbianismoa, bisexualitatea edo trans errealitateek tradiziozko genero arauak hautsi eta zalantzan jartzen dituzte, hau da rolak, portaerak, sexu bakoitzari egokitutako jokabideak, patriarkatua, sexualitatea, heteronormatibitatea, eta abar.

Jokaera hauek zigortu egiten dira araua urratu eta ezezagunari ate bat zabaltzen diotelako, eta sortzen diren beldur eta arrisku sentimentuek sarritan jazarpen eta bazterketa egoerak bultzatzen dituzte. Jazarpen egoera hauek modu askotarikoak izaten dira, zorrotzagoak edo leunagoak izan daitezke baina beti onar daitekenaren eta onartezinaren arteko muga marrazten dute. LGBTI kolektiboaren bazterketen artean, pertsona hauek eskola ingurunean pairatzen duten bazteketa izan da nazioartean gehien landu dena.

## LGBTfobia eta hezkuntza sistema

Nerabezaroak, haurtzarotik gaztarorako iragateak, identitate sexual zehatzago bat dakar berarekin. "LGBTIfobiak eragin handia izan dezake bizitzaren garai honetan. Nerabeak ez dira heldutasunera heldu baina helduak direla adierazi nahi dute. Mutilen kasuan nabaria da: maskulinitatea, feminitatea eta homomosexualitatearen aurka eginez sortzen da. Ez naiz ez maritxu ezta neska bat ere. Oraindik ez naiz gizona eta nire maskulinitatean seguru sentitzen ez naizen arren, ni horrelakoa ez naizela erakutsi behar dut eta maskulinitatearen ezaugarriak betetzen ez duena zapaldu" azaldu du pedagogoa eta generoan aditua den Amets Jordan Arrietak.



Nerabeok errealitate honi egin behar diote aurre haientzako erreferentzia puntu nagusietakoa den eskolan. Gazteok pairatzen dituzten erasoak, irainak eta beldurrarazteak txosten askotan jaso dira.

Txosten horien artean Gehituk eta Guztiok Elkarteak Bizkaian eta Gipuzkoan egindako "Berdindu! Aniztasun afektibo-sexualaren aurreko jarrerak ikasgeletan. 2013-2014 ikasturtea" txostena nabarmentzeko modukoa da. Bertan "hamar ikasletatik sei baino gehiago irain eta iseka homofobo edo lesbofoboen lekuko izan dira" bezelako datuak agertzen dira; "gutxienez hamarretatik hiruk isolamendua ikusi dute eta hamarretatik bi eraso fisikoen testigu izan dira" eta "ikaslegoaren erdia inguruk ez du ikastetxea ingurune segurutzat hartzen eta lagunen eta ikaskideen erreakzioaren aurrean ziurgabetasun handia dagoela adierazten dute, batez ere mutilen kasuan".



Hau dela eta soziologian doktorea den Lucas R. Platerok hauxe adierazi du: " Arraroa izango litzateke eskola gizartean gertatzen denaren ispilua ez izatea. Eskola komunitate bati dagokio, ez da hutsean garatzen, basamortu baten erdian. Eta auzoa arrazista, sexista eta homofoboa bada, eskola ere horrelakoa izango da. Batzutan gizartean egiteko prest ez gauden gauzak eskolari egiteko eskatzen diogu. Normaltasunaren zentzu faltsu samarra daukagu. Neska eta mutilek helduengandik ikasten dutena zera da, badagoela normala izatea deitzen dugun zerbait, gehiengoaren parte izatea eta arrakastatsua izatea"

## Hezkuntza neutrala

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Berdindu Zerbitzuaren eskaerari erantzunez EDE Fundazioak 2016-an egindako "Lesbofobia, Homofobia eta Transfobia hezkuntza-sisteman" ikerketaren arabera nerabeok printzipioz LGBTI kolektiboekiko errespetua erakusten dute. Baina diskurtso politiko zuzenetatik haratago joan beharra dago eta horren azpian nolabaiteko onarpen eza eta errespetuzko ez diren jarrerak ikus daitezke.

Adierazgarriak diren hainbat idea aurki daitezke, adibidez homosexualitatea, lesbianismoa eta bisexualitatea moda bat direla edo itxurakeria; baita ere, gay edo lesbianen bikoteetan pertsona batek gizonaren rola hartzen duela eta besteak emakumearena; edo gay eta lesbianak ezagutu ahal direla haien itxura eta keinuengatik; idea hauek nerabe batzuren buruetan jarraitzen dute ikerketaren ondorioen arabera. "Sexu joera desberdin bat moda bat denaren iritziaren atzean gaitzezpen jarrera bat izkutatzen da. "Matrix" hererosexual moduko batean bizi gara eta egitura sozialak eta beraien funtzionamendua pentsamolde horretatik eta horretarako pentsatuta daude. Baginarekin ala zakilarekin jaiotzen den oso modu desberdinez hezi ohi ditugu pertsonak. Eta honetan oinarriturik mundu oso bat eraiki ostean ikasleok nerabezarora heltzen direnean ahoa bete hortz gelditzen gara, eta orduan ikasgai bakoitzeko gehienez hamar ordutako programak egin nahi izaten ditugu eta kitto. Hezkuntza neutrala areagotu behar dugu, bullying sexista eta homofoboa bezalako jarrerak sortu baino askoz lehenago" ohartarazi du Jordanek.

Helburu hau lortzeko proposazen diren ekinbide nagusiak hezkuntzako curriculuma lantzea eta irakasleon prestakuntza areagotzea dira. "Eusko Jaurlaritza urrats asko ematen ari da norabide honetan, Berdindu Eskola bezalako zerbitzuak sortuz. Gaur egungo jarrera askoz positiboagoa da lehengoarekin konparatuz. Honekin ez dut esan nahi eseri eta gauzak zein ondo egiten ditugun pentsatuz atsegin hartu behar dugunik, baizik eta pausuak ematen ari garela norabide batean.

Baina hau ez da bakarrik sentsibilizatutako ikastetxeetan gertatu behar, ikastetxe guztietara zabaldu behar da. Eta hezkuntzako oposaketetan beharbada LGBTIfobiarekin zerikusirik duten legeak sartu beharko genituzke, arazo hau garrantzitsua dela publikoki adirazteko, eta ez arazo hau gogoan hartu bakarrik mutikoren bat bere buruaz beste egiten duenean" bukatu du Platerok.

## TERMINOEN GLOSATEGIA

**Bisexuala:** Bi sexuetako pertsonenganako erakarpena sentitzen duen gizona edo emakumea.
**Heteronormatibitatea:** Gure gizartean nagusi den ideologia; horretan oinarrituta ezartzen dira harreman heterosexualak jarraitu beharreko araua eta eredu gisa.
**Heterosexuala:** Emakumeenganako erakarpena sentitzen duen gizona, edo gizoneenganako erakarpena sentitzen duen emakumea.
**Homosexuala:** Desira bere sexu bereko pertsonengana orientatuta duen pertsona.
**Homofobia:** Homosexualak diren, homosexualak ematen duten edo irudimenean homosexualak diruditen pertsonenganako beldurra eta arbuioa.
**Intersexuala:** Zalantzazko genital eta/edo bi sexuei lotutako ezaugarri biologikoekin, edo zalantzagarriekin jaiotzen den pertsona.
**Lesbiana:** Emakumeenganako erakarpena sentitzen duen emakumea.
**Lesbofobia:** Lesbianak diren, lesbianak diruditen edo irudimenean lesbiana lotzen diren pertsonenganako beldurra eta arbuioa.
**LGBTI:** Lesbianak, gayak, bisexualak, transexualak eta intersexualak aipatzeko erabiltzen den akronimoa.
**LGBTIfobia:** Lesbiana, gay, bisexual, trans edo intersexualekiko edo haien adierazpenekiko beldur irrazionala.
**Transexualitatea:** Jaiotzean zituzten genitalen arabera esleitu zieten sexuarekin bat ez datorren sexu identitateko pertsonen bizi zirkunstantzia.
**Transfobia:** Transexualak diren, transexualak diruditen edo irudimenean transexualekin lotzen diren pertsonenganako beldurra eta arbuioa.

## Interesgarria / De Interés

### BIDEOA



GURE KAIOLA

Glaukoma, talde gipuzkoarraren lan berriak, "Kalima", argia ikusi zuen udaren bukaeran.
Hamahiru abestiz osatua dago eta haien artean "Gure Kaiola", diskoaren bigarren singlea, eta bideoklip berriari izenburu ematen dion kantua.
Abestia genero rolen aurkako kantu bat da, hip-hop eta reggae estilo musikalak konbinatzen dituena.

BIDEOA

### LIBRO




TRANS*exualizadades. Acompañamiento, factores de salud y recursos educativos

*Tran*sexualidades* de Lucas Platero, es uno de los libros de referencia de los estudios trans* en el Estado español. El trabajo realizado por el autor en las aulas durante este tiempo, lo sitúan como el inicio de un camino que no ha hecho más que comenzar.

### MÚSICA




Emakunderen udako jaietarako 200 proposamenak

Iazko kanpaina bada ere, arrakasta handia izan zuen emakunderen SPOTIFY ez sexistak.
Beraz, aurten ere jaietan, hondartzan eta mendian entzuteko 200 abesti baino gehiago aurkituko dituzu hemen.

EMAKUNDE

# Elena Simón, Nahikok, berdintasunerako, errespeturako eta biolentzia-ezarako Hezkidetza programak, antolatutako jardunaldietan egon zen.



Elena Simon Filologia Modernoan lizentziaduna da eta urte askoan Bigarren Hezkuntzako irakasle izateaz gain, Hezkidetzan aditua, irakasleen hezitzailea, genero-analista eta idazlea izan da.

Pasa den Apirilean, Bilbon, Emakundek, Nahiko Programaren barnean, antolatutako III. jardunanldi orokorretan parte hartu zuen.

Bere esanetan, Berdintasunerako hezkuntza, matematika bezain garrantzitsua da, eta curriculumean egon behar da.

Gainera, berdintasunean irakastea oso erreza dela adierazi zuen baina "feminismoari lotutako gauza guztiekin gertatzen denez, ez da erraza ikusten".

Helburua lortzeko, ikastetxe guztietan hezkidetza orokortuta egon beharko litzatekeela esan zuen, "hasi Haur Hezkuntzan eta Unibertsitatera iritsi bitartean".

Eskola heziketak, mutilak eta neskak berdin tratatzen dituela zalantzan jarri zuen: "Bai eta Ez, Gure eskola mistoa eta igualitarista da, igualitarioa baino gehiago. Igualitarista da mutilen eta nesken artean diferentzialik ez duena. Horrekin, besterik gabe, berdintasunerako hezten ari garela iruditzen zaigu."

## La profesora en Tecnología electrónica María Ángeles Martín Prats recibe el premio Ada Byron a la Mujer Tecnóloga

La profesora titular de la Universidad de Sevilla en el departamento de Ingeniería Electrónica María Ángeles Martín Prat recició el Premio Ada Byron a la Mujer Tecnóloga, un galardón que impulsa la Facultad de Ingeniería de la Universidad de Deusto con el objetivo de fomentar las vocaciones femeninas en el campo de la investigación y el desarrollo tecnológicos, prestigiar la importancia de la tecnología en todos los ámbitos de la vida y para el desarrollo social, así como para dar valor al trabajo y los logros que el desempeño de estas tareas y estudios por parte de las mujeres han aportado a la humanidad.



# Osakidetzak transexualen arreta bizkortuko du



Gurutzeta ospitaleko Genero identitaterako Unitateak, Transexualitatearen arretarako Eukadiko erreferentziazko zentroak, itxaroteko denborak murriztu egingo ditu. Gainbegiratua izateko Psikiatriagaren ardura ez da izango hemendik aurrera, eta Endokrinologiak hartuko du ardura hori. Horrela erantzun du Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak haur eta gaztetxo transexualen familien elkartearen aspaldiko eskakizun honi.

Elkarteak beti adierazi du desegokia ikusten dutela haurren lehenego mediku bisita psikiatra profesional batekin izan beharra eta gainera prozesu osoa honen ardura izan beharra.

Eusko Jaurlaritzako Genero Unitateko arduradunen hitzetan "Euskadik ez du ezer asmatu". Holandako eredua kopiatzea baino ez digute egin, azaldu zuten eta "Hain arrakastatsua den metodo honekin gure zerbitzuak eguneratu baino ez dugu egin" adierazi zuten.

Osakidetzako ordezkariek, zerbitzu hau 10 urtetan publikoari zabalik egon ondoren "hobetzeko aldeak" dituela onartu zuten. Hutsune hauek Chrysallis-ekin batera lantzen ari dira orain dela hilabete batzuk eta arreta arintzearen lehengo pausu izan da.

Gurutzetako Unitateak pasa den urterarte 237 pertsonen kasuak jaso zituen, 50 adintxikikoak zirelarik –15 lau urtetik beherakoak-. Eta hasi zenetik 4.870 kontsulta izan ditu eta mota desberdinetako 154 ebakuntza kirurgiko.

## BA AL ZENEKIEN?

Maiatzaren 17ko Homofobia, Transfobia eta Bifobiaren aurkako Nazioarteko Eguna, 1990eko maiatzaren 17an Munduko Osasun Erakundeak homosexualitatea gaixotasun mentalen zerrendatik ezabatu zuelako ospatzen da.

Egun honetako helburu nagusia hauxe da: pertsona homosexual, bisexual eta transexualenganako diskriminazioa salatzeko balio duten ekintza mota guztiak koordinatzea.

2015ean, bifobia gehitu zen kanpainaren izenera.



# BEA SEVER

## RESPONSABLE DE PRENSA DE CHRYSALLIS EUSKAL HERRIA

"La actitud del profesorado ante los casos de transexualidad en menores es buena, pero tienen mucha desinformación"

Así lo percibe Bea Sever, periodista, sexóloga y madre de un niño con pene y otro con vulva. También es responsable de prensa de la asociación de familias de menores en situación de transexualidad Chrysalys Euskal Herria. Desde esta asociación, que en cuestión de cinco años ha pasado de ser 8 familias a casi 70, han presentado un borrador de ley en el Parlamento Vasco para abordar una nueva ley de transexualidad. Entre otras medidas, exigen que el profesorado reciba formación en transexualidad para que no se alarguen innecesariamente procesos que pueden ser abordados desde los primeros años.

¿Qué sensación tienes respecto a la atención de menores en situación de transexualidad en los centros educativos?

Lo más habitual es que exista un desconocimiento de esta realidad. Nosotras mismas en las familias hasta hace poco estábamos igual y lo entendemos. Lo que pasa es que, teniendo en cuenta que les va a tocar atender esta realidad, consideramos importante que se incluya formación dentro de las carreras. Desde Chrysallis hacemos formaciones de una o dos horas porque es un tema que a día de hoy no está incluido en ningún currículum.

En lineas generales, ¿cómo es la actitud del profesorado al abordar este tema?

La actitud del profesorado suele ser buena, pero tienen mucha desinformación. Desconocen la realidad y no saben cómo actuar. Tampoco conocen los recursos que tienen a su disposición, con lo cual, somos las propias familias a las que nos está tocando dar la formación. A veces los colegios se ven desbordados o tienen miedos e intentan dilatar procesos que para los y las menores son muy importantes. Hemos encontrado varios casos con actitudes tipo "si hago como que no miro igual me libro" y algún caso en el que el profesorado se ha negado a llamar al alumno o a la alumna por su nombre sentido.

Habéis planteado una reforma de la Ley de transexualidad. ¿Qué sugerís en el ámbito educativo?

Desde Chrysalis y Errespetuz, que es la asociación de personas adultas transexuales, presentamos un borrador de ley en el Parlamento Vasco que contó con el apoyo de todos los partidos. Ahí abordamos una nueva ley de transexualidad porque la de 2012 está muy desfasada y es patologizante. En el ámbito educativo, una de las reivindicaciones más importantes que solicitamos es la formación integral a todo el profesorado de la CAV, para que antes de que aparezca cualquier caso se sepa identificar y tratar.

¿Cómo se tratan ahora mismo los casos de transexualidad en menores en la escuela?

Existe un servicio gratuito desde el Gobierno Vasco, que se llama Berdindu Eskolak, mediante el cual, se imparte una formación de 3 o 4 horas a todo el personal docente y si fuera necesario, también se hace una intervención en el aula. Pero sólo se ofrece asesoramiento gratuito en los centros en los que aparezca un caso de transexualidad y nos parece vital que la formación sea integral, porque si tú no sabes que una realidad existe no la puedes ni ver, ni nombrar, ni identificar .

¿Qué ocurre para que exista tal desconocimiento?

Que la mayoría de los centros no saben de la existencia de la transexualidad. Así que mucho menos pueden conocer que hay una guía que les orienta cómo tratar estos casos, ni que existe Berdindu Eskolak, ni que tienen que cumplir la ley de transexualidad de 2012 que les obliga a nombrar a la persona por su nombre elegido, a facilitarle que vaya a los baños de su sexo sentido, en caso de que el centro tenga uniforme hay que permitirle llevarlo acorde a su sexo sentido, y a una serie de medidas que son un poco variables dependiendo de cada caso.



¿Qué sugerirías a los centros educativos para mejorar la atención de menores en situación de transexualidad?

Les falta información pero yo no se si está tanto en manos de los centros escolares como en el Departamento de Educación. Desde el centro al final, si desconocen que existe un protocolo y que existe esa realidad, difícilmente van a poder ayudar. Una vez de que lo conocen la actitud suele ser buena y positiva. Hasta ahora lo que se está haciendo es por la buena voluntad del personal docente. En Chrysallis muchas veces nos ocurre que cuando vamos a abordar alguna cuestión, bien sea en el ámbito educativo o sanitario, siempre nos deseamos "suerte" y que triste es que pidamos suerte en vez de justicia. Nuestros hijos e hijas tienen que tener los mismos derechos que los demás y en la mayor parte de las ocasiones no los tienen porque no esta bien recogido o bien abordado el tema.



### Descubre el crucigramas relacionadas con la palabra Homofobia

1 - conocer los propios derechos y defenderlos, respetando a las demás personas
2 - sentimiento de unidad basado en metas o intereses comunes
3 - Vivir o habitar con otras personas en el mismo lugar.
4 - respeto hacia las ideas, preferencia, forma de pensamiento crítico, o comportamientos de las demás personas.
5 - capacidad de la conciencia para pensar y obrar según la propia voluntad de la persona.
6 - característica de aquellos estados en los que toda la ciudadanía sin exclusión alcanzan la realización de todos los derechos humanos
7 - Consideración de que algo es digno y debe ser tolerado
8 - capacidad de percibir, compartir y comprender (en un contexto común) lo que otro ser puede sentir

Soluciones:
1. asertividad
2. solidaridad
3. convivencia
4. tolerancia
5. libertad
6. igualdad
7. respeto
8. empatía